

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren, bere erakunde autonomoen eta merkataritzako foru sozietateen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du, 2011ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako batek boto partikular konkurrizalea egin du.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ditu eta eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2011ko ekitaldian legezketasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Bada, administrazioko kontratazioa fiskalizatzean azpimarratzekoa da 15,9 milioi euroan esleitutako finantza errentamenduko espediente batean egindako aldaketa eta luzapena; aldaketa hori ez zen pleguetan jaso, ez eta kontratuaren balioetsitako balioan ere; prestazio horiek prezioaren gainean % 28 egiten dute. Berebat, ezarritako prozedurak saihesteagatik hainbat kontrataziori eragozpen txostena egin zaie.

Diru-laguntzei dagokienez, azpimarratzekoa da 2010eko ekitaldiko diru-laguntza izendun baten xedea eta norakoa justifikaziorik gabe aldatu izana; hori diru-laguntza berri bat zuzenean esleitzea da, lehia eta publikotasunik gabe izapidetutakoa.

AFaren bi erakunde autonomoek indarreko araudia bete dute ekonomia-finantzaren kudeaketan; alabaina, salbuespen da 39/2010 Legeak agintzen duen ordainsarien murrizketa oso-osorik 2011ko urtean ez ezarri izana eta zenbait kontrataziotan ezargarria den araudia ez betetzea.

Epaitegiaren iritzira, AFAk eta Gazteriaren Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Institutuak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, nahiz AFaren kasuan 2011ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinean bi doiketa azaleratu dituen, geldikina 125 milioi euroan murrizten dutenak eta txostenean bertan zehaztu direnak. Berebat, Gizarte Ongizaterako Institutuaren kasuan, zalantza egoera dago hainbat gairi loturik Estatuko Zerga Agentziarekin sortutako desadostasunetatik eratorritako ondorio ekonomikoen gainean.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten hamar foru sozietate publikoak fiskalizatu ditu; erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa da, bertan jasotako ez-betetzeak salbuetsita. Gainera, aldeko iritzia plazaratu du sozietate publiko horien urteko kontuen gainean, Araba Garapen Agentziaren kasuan izakinen balorazioari dagokionez sortutako zalantza salbuetsita.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalari, ondareari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Amaitzeko, ondorio modura esan daiteke finantza egoerak okerrera egin duela aurreko ekitaldiarekiko; Diruzaintza Geldikin Erabilgarria HKEE honek proposatutako doiketen ondoren 24,7 milioi euro murriztu da, itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz, nahiz gastu arruntaren eta kapital gastuaren maila murriztu den. Horrezaz gain, zorpetzeak izan duen igoeraren berri ematen da, zeinak sozietate publikoak barne hartuta, 474,3 milioi euro egin dituen; hori 2008an baino % 72,1 handiagoa da.